


ESPAINIAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

Espainako ekonomia bizkortu zen aurtengo lehen hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



INEk argitaratu dituen datuen arabera, Espainia %2,4 hazi zen 2019ko lehen hiruhilekoan. Hazkunde horri esker, ekonomia espainiarrak indarra berreskuratu zuen, lau hiruhilekoz jarraian moteltzeko bideari atxikita. Barne eskariaren bizitasuna izan zen ekonomia jardueraren bultzagile nagusia. Familien eta enpresen ondareen egoera hobek, finantzaziorako baldintza egokiek eta lan merkatuaren egonkortasunak inbertsioa eta kontsumo pribatua gorarazi zuten. Barne eskariaren sendotasunak kontrastea egin zuen esportazioen ahultasunarekin, munduko merkataritzaren moteltzeak baldintzatuta hazkunde hutsala izan baitzuten, eta inportazioen jaitsierarekin, %0,5 murriztu baitziren. Bilakaera txar horren irakurketa positiboa da barne eskariak, lehenengo aldiz urtebete eta erdian, ekarpen positiboa egin ziola BPGari.


Gastua azken kontsumoan




Urte arteko aldakuntza tasak



Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasak



Industriaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Eraikuntzaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa


Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek, maila agregatuan, hazkunde positiboak lortu zituzten, baita industriak ere, %0,1 hazi baitzen, 2018ko amaieran izan zuen jaitsieratik suspertuta. Eraikuntza izan zen berriro dinamikoena, baina bizitasuna galdu zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Dena dela, hazkunde sendoa izan zuen. Zerbitzuek, berriz, goranzko ibilbide leunari eutsi zioten eta gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten adar guztietan.

Joera bera hauteman zen lan merkatuan, ia adar guztiek enplegua sortu zutelako. Salbuespen bakarra lehen arloa izan zen, berriro behera egin baitzuen. Hain zuzen ere, enplegua %2,8 hazi zen, lanaldi osoko 510.000 enplegu garbi sortuz.

Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa
